

Hemen zaude: [Sarrera](#) » [Aktualitatea](#) »

'Euskal kantagintza berria' liburuaren berrargitalpena aurkeztu du Pako Aristik

Uztarria.eus | [Kultura](#)
2020ko mai. 21a, 12:05

"Euskal kantagintza berria" / AURKEZPENA

streaming

EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA (1961-1985) PAKO ARISTI

AURKEZPENA

Watch later Share

Euskal Kantagintza berria
Pako Aristi

Eguna / Maiatzak 21 Ordua / 11:00 h

Parte hartzaileak: **Pako Aristi eta Iñaki Aldekoa**

erein

Zuzenean galdetu ahal izango da Youtubeko txataren bidez edo WhatsApeez 688 683 456 telefonoan

Duela 35 urte argitaratu zuen *Euskal kantagintza berria* liburuaren berrargitalpena aurkeztu du gaur, osteguna, Pako Aristik. Erein argitaletxeko Iñaki Aldekoa alboan zuela egin du streaming bidezko aurkezpena azpeitiarrak. Aldekoaren hitzetan, 1985ean idatzi zuen liburuarekin asmatu zuen Aristik; izan ere, hark esan duenez, liburu "erreferentea" izan da azpeitiarrak 21 urterekin idatzi zuena.

Aristik denboran atzera jo du, liburua egiteko aukera nola sortu zitzaion azalduz: "Bernardo Atxagak proposatu zuen liburua nik egitea Ereinen. Kazetaritza ikaslea nintzen, ordurako elkarrizketa batzuk eginak nituen hainbat egunkaritarako, eta hark defendatu zuen Ereinen liburua nik egin behar nuela. Enkargua pozarren eta zorutzen hartu nuen, bi arrazoigatik: euskal kantagintza asko entzuten nuelako sasoi hartan eta musikariak izugarri maitatzen, estimatzen eta baloratzen nituelako; egia esan, nire bizitza aberasteko oparia izan zen haiei elkarrizketak egitea. Bestalde, lanerako gogoa nuen, ilusioa, eta liburu bat egiteko aukera zorutzen onartu nuen".

Aurkezpenean egoterik izan ez badu ere, Jon Eskisabel ekarri du gogora Aldekoak, hark egin duelako berrargitalpenerako hamabi orrialdeko hitzaurrea. Euskal musikagintzan aditua da Eskisabel, eta Aldekoak esan duenez, merezi du libururako egin duen hitzaurrea irakurtzeak; izan ere, 1985etik hona euskal musikagintzak izan duen bilakaera jaso du bertan. Edizio zuzendua da Ereinek orain plazaratu duena, eta Aristi beraren hitz batzuk jaso dituzte liburuaren kontrazalean.

Bidali: [Twitter](#) [Facebook](#)

Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

»» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)

uztarria.eus: Uztarria Komunikazio Taldea

Perez Arregi 1 behea 20730 Azpeitia

Harremanetarako: [kontaktu formularioa](#), **e-posta**: uztarria@bilduajuztarria.com **telefonoa**: 943150358

[Estatistikak](#)

[Babesleak](#)



Azpeitiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Saibilburuordetzak) diruz lagundua.

Uztarriak ez du bere gain hartzen webgunean adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



Gure lizentzia: [Creative Commons Aitortu Partekatu](#)